



• ASTERO GAIA •

Bozak Hego Euskal Herrian

Zapateroren arrakasta, abertzaleen ezina

Bipartidismoa da Espainiako Gorteetarako hauteskundeotan gehien errepikatu den hitzetako bat, eta joera horrek gurean ere arrasto handia utzi du, batez ere PSE-EEren mesederako. ETAren azken orduko atentatu bortitzak ere izango zuen eraginik. Ordainetan, PP eta PSOE –edota UPN, PSE eta PSN– ez direnen gehiengoak beharakada jasan du, EAJk eta EAK bereziki gogor. NaBai baino ez da gauza izan emaitzei eusteko eta ezker abertzaleak eskatutako abstentzio aktiboa azpimarratzekoa izan da. Kontuak kontu, Espainiako Kongresuaren irudi berriak datozen lau urteotan Euskal Herriari nola eragingo dion ikustea da orain gakoa.



PSE-EE izan da garaile garbia EAEn.

MIKEL GARCIA

Argazkia: Luis Jauregiartzo /Argazki Press

“EZ DA GAUZA BERA” zioen PSEren kanpainako leloak, PPren irudi agresibotik aldeni nahian, eta mezua jendeari heldu zaiola dirudi, Zapatero eta Raxoiren arteko buruz burukoa zirudien honetan popularren garaipena saihesteko gairontzeko alderdietatik boto ugari jaso baitituzte sozialistek. Desberdintasun hori, ordea, nekez antzematen da batzuetan, ezker abertzaleak azkenaldian bizi duen sorgin chiza ikusita. 2004ko hauteskundeetan ere PSOEren ordezkariak irabazi zuten Hego Euskal Herrian –orduan bi eserleku gutxiagorekin–, eta soilik alderdi desberdinek lortutako eserleku kopuruari begiratuta, emaitzak antzekoak izan ziren –EAJk bat gutxiago lortu du oraingoan eta EAK berea galdu du–. Egoera, baina, bestelakoa da. Orduan

ezustekoz harrapatu zuen Zapateroren garaipenak eta PPren legegintzaldi gogorraren txandaketak arnas pixka baten itzaropena ekarri zuen: lehendakaria Estatutu Berriaren proposamenarekin ausartu zen, eta PSOEek eta ETAk bake prozesua abiarazi zuten, besteak beste. Egun, zaila da Zapateroren talenteaz hitz egitea, Espainiako presidentearen promes asko airean geratu dira, bake prozesua amaitua dago eta EAE-ANV eta EHAKren ilegalizazioek edo 18/98 auzia bezalako prozesuek garai ilunak ekarri dituzte. Gainera, ETAren azken atentatuaren ostean are urrunagoa dirudi talde armatuaren eta Espainiako Gobernuaren arteko elkarriketa berririk. Hala ere, euskal gizartearen zati handi batek bere babesa eman dio PSOERI –541.404



boto, PP bigarren indarrak baino 202.000 inguru gehiago eta EAJk baino ia 238.000 gehiago— eta pentsatzekoa da elkarrizketaren aldeko Zapaterori bideratu zaiola babes hori, eta ez ilegalizazioen bideari.

EAJk berak esan du ez dela gauza bera PP edo PSOEren Gobernu Madrilen, eta José Luis Rodríguez Zapateroren garaipenaz konbentzitu-ta, kartak mahai gainean jarri zituen kanpainan. Azken finean, lau urteotan Espainiako aurrekontuak onartzeko EAJren babesa izan du Gobernuak —eta ondoren PSOErena Jaurlaritzak, EAEkoak onartzeko—, eta jeltzaleek, emaitza txarrak izan badituzte ere —ia 120.000 boto galdu dituzte—, badakite oraingoan ere giltza izan daitezkeela. Hain zuzen, PSOEz eta PPz gain, EAJ eta CiU dira talde parlamentarioa osatzea lortu duten bakarrak, eta gobernagarritasuna ahalbidetzeko PSOEek bi alderdi horietan akordioak bilatuko ditu, ziurrenik. Paktuak adosteko oso prest dagoela argi utzi du EAJk, eta giltza izan badaiteke etekinak ateratzen saiatuko dela. Lehenengo, seguruenik, kudeaketa arlokoak (aurrekontuak, eskumenak...) eta ondoren, makropolitikari dagozkionak, urriaren 25eko herri galdeketa egin ahal izateko negoziatzea eta lehendakariarekin biltzea behin eta berriz eskatu baitute alderdikideek.

Kongresuan ordezkariak izango duen beste talde abertzalea Nafarroa Bai izango da. Eserle-

kuari eustea lortu du, boto eta portzentajeen gorakada txiki batekin; ez da apenas aldaketarik egon Nafarroan. Kontran, EAK lehenengo aldiz bere 22 urteko historian ez du ordezkariarik izango Espainiako Kongresuan, duela lau urteko datuekiko 30.942 boz galdu ostean. EAJk eta EBk bezala, EAK batetik bipartidismoari eta bestetik ETAren atentuari egotzi die errua, baina beharako joera ez du berria: iazko udal eta foru hauteskundeetan ere EAJrik gabe aurkeztu zen eta 2004an baino boto gutxiago lortu zituen (11.250 bat gutxiago). Oraingoan EAK bere independentzia ozen aldarrikatu du EAJrekiko eta azken honek Espainian duen jarrera kritikatu, baina hainbat alderdikide konturatzen hasia da euren alderdia EAJrekiko bereiztea kostatu egingen zaiola hautesle askori, eta orain zaila gertatzen ari zaie nortasun propioa berreskuratzea. Martin Aranburu Kongresurako EAKo Bizkaiko zerrendaburuak berak esan du EAJrekin egindako koalizioak oztopo eta enbarazu baino ez direla izan bere alderdiarentzat. Ikusi beharko da zein bide hartzen duten etorkizunean.

EB, Espainiako Estatuan IUren moduan, bipartidismoaren biktima garbia izan da eta Aralarrek ere duela lau urte —orduan Zutikekin koalizioan— baino ia 8.900 boz gutxiago eskuratu ditu. Hain justu, Euskal Herria Bai guztien arteko koalizioaren alde azaldu da Aralar, abertzaleen emaitza eskasei erreparatuta: PP, UPN, PSE

Espainiako hauteskunde orokorrak 2008

Emaizak

ARABA

Boto kopurua	2008	2004
alderdia	2008	2004
PSE-EE	69.180	56.137
PP	44.937	48.992
EAJ	31.844	47.090
EB-Berdeak	7.093	14.181
EA	5.285	7.838
Aralar	2.911	3.417
Abstentzioa	% 29,72	% 22,77

Emandako botoen banaketa

Senadoreak: PSE-EE (3), PP (1).

BIZKAIA

Boto kopurua	2008	2004
alderdia	2008	2004
PSE-EE	230.728	185.514
EAJ	194.511	258.488
PP	114.783	129.889
EB-Berdeak	27.394	59.493
EA	19.484	30.096
Aralar	9.680	12.791
Abstentzioa	% 32,49	% 24,17

Emandako botoen banaketa

Senadoreak: PSE-EE (3), EAJ (1).

GIPUZKOA

Boto kopurua	2008	2004
alderdia	2008	2004
PSE-EE	125.659	98.100
EAJ	76.891	115.402
PP	46.982	56.904
EA	25.352	42.971
Aralar	17.193	22.352
EB-Berdeak	15.656	28.668
Abstentzioa	% 41,82	% 27,45

Emandako botoen banaketa

Senadoreak: PSE-EE (3), EAJ (1).

NAFARROA

Boto kopurua	2008	2004
alderdia	2008	2004
UPN-PP	131.618	127.653
PSN	115.837	113.906
NA-BAI	62.073	61.045
NEB-IU	11.035	19.899
Abstentzioa	% 26,75	% 23,78

Emandako botoen banaketa

Senadoreak: UPN-PP (3), PSOE (1).

HEGO EUSKAL HERRIA

Boto kopurua	2008	2004
alderdia	2008	2004
PSOE	541.404	453.657
PP-UPN	338.320	363.438
EAJ	303.246	420.980
NA-BAI	62.073	61.045
EB-IU	61.158	122.241
EA	50.121	80.905
Aralar	29.784	38.560
Abstentzioa	% 33,33	% 24,78

Emandako botoen banaketa

Senadoreak: PSE-EE/PSOE (10), UPN-PP (4), EAJ (2).

ESPAINIA

Boto kopurua	2008	2004
alderdia	2008	2004
PSOE	11.064.524	11.026.163
PP	10.169.973	9.763.144
IU	963.040	1.284.081
CiU	774.317	835.471
UPyD	303.535	-
EAJ	303.246	420.980
ERC	296.473	652.196
BNG	209.042	208.688
CC-PNC	164.255	235.221
NA-BAI	62.073	61.045
Abstentzioa	% 24,68	% 24,34

Emandako botoen banaketa

Senadoreak: PP (101), PSOE (89), PSC-ERO-ICV-EUIA (12), CiU (4), EAJ (2).



Aurkariaren etengabeko ernegazioaren laguntzaz lortutako garaipena

José Luis Rodríguez Zapaterok bikain gainditu ditu hauteskundeetan ipini dizkioten oztupoak. Eskuin politikoa nahiz mediatikoak agintera istripuz —alegia, martxoaren 11ko atentatuen ondorioz— heldu izana behin eta berriz leporatu izan badio ere, ezin uka PSOEk Moncloan jarrai dezan harilkatu duen estrategia aproposa izan ez denik.

Lehenik eta behin, PP alderdia zentro epetetik eskuin muturrera irristatzeraino bultzatu izana aitortu behar zaio ongi asmatutako kolpeen artean, Mariano Raxoi jaunak lideratzen duen alderdiaren joera nagusia Espainiako apezpikurik atzerakoienekin, eskubide sozialen murrizketekin, frankismoaren oinordekoekin garbi identifikatzea. Eta horrekin batera, bipolarizazioaren tentsioa, batez ere ERCren estropozua, IUren amiltzea eta Gaspar Llamazaresen dimisioa ekarri dituen, haren alde jartzea. Bigarren lorpen esanguratsua, gai ekonomiko eta sozialetan indarrean jarritako programek beste lau urtetako luzapena merezi dutela sinestaraztea.

José Luis Rodríguez Zapaterok gidatuko duen gobernu berriak, gehiengo erosoagorik lortu ez duen neurrian, aurreko legealdiko moldeetatik hurbil jarraituko duela dirudi. Nazionalistek lortutako emaitza



kaskarren ondorioz kongresuko aukien koloreak nabarmen aldatuko baldin badi- ra ere, haien sostengua beharko baitu aurrera begiratzeko. Eta, bestalde, ekonomia- ren makaltzea, langabezia eta inflazioa mahai gainean izango ditu ber- din, hauteskundeetako zurrunbiloa bere onera etortzen denean. Lau urteotan egindako akatsak agudo zuzenduko zituela agindu zien espainiarrei garaipe- naren berotasunean.

Haize berritzaileak nondik joko duen aipatzen hasita, Madrilgo politika ukitu- ko duen aldaketa esanguratsuenetako

bat PPren ildotik agertzea espero dute adituek. Etengabeko krispazio- ak, salbuespenik gabeko ernegazioak eta leporatzeak, nahita nahiez- ko erasoak alderdiari orain dela lau urte baino boto gehiago eman diz- kion arren, aurkaria bazterrean uzteko estrategia gisa huts egin baitiote Mariano Raxoiri. Eta dagoeneko bigarren porrota du. Ikuski- zun da, PPren lidergoari ezinegonik eragingo ote dion, eta eragiten badio, maniobratzeko zer nolako aukerak zabalduko zaizkion Zapate- roren Gobernuari.

Garbaine Ubeda Gorkoetxea

eta PSNren artean 875.000 boto eskuratu dituzte eta EAJ, NaBai, EA, Aralar eta ezker abertzalearen estimazioak 620.000 baino ez dituzte batzen. Aldea handia da eta Espainiako eta Euskal Herriko hauteskundeetarako jendeak desberdin bozkatzeko duen arren, abertzaleen arteko bata- sunaren beharra agerian utzi du.

Abstentzio handia

Ohiko abstentzioa abstentzio aktibotik bereiztea zaila bada ere, datuek arrasto batzuk utzi dizki- gite. Hego Euskal Herrian %33,33koa izan da abstentzioa —%24,68koa Espainiako Estatuan—, duela lau urtekoa baino ia 9 puntu handiagoa, eta batez ere Gipuzkoan nabarmendu da (%41,82). 2000. urtean, Batasunak abstentziorako deia egin zuenean, %35,2koa izan zen Hego Euskal Herrian. Ezker abertzaleak beste behin erakutsi duen indarra alde batera uztea tontakeria litzate- ke eta Espainiako erakunde politikoetan eragin esparrurik izango ez badu ere, alderdien arteko bilerei berriz ekingo ote zaien ikusi beharko da; hau da, datozen lau urteetan Espainiako Gobernu- a ezker abertzalearekin elkarrizketak berreskuratzeko prest egongo al den. Kontuak kontu, ohiko bilaka- tzen ari den arren ez dio oso larria izateari utzi milaka pertsonaren hautua den alderdia ilegalizatzen jarraitzea eta zorritzarez, hautes-

kunde hauetan ere errepikatu egin da normaliza- zio falta hori.

Lurraldeka ezustekoak

Historian lehen aldiz, PSEk irabazi egin du EAEko hiru lurraldeetan. Bereiziki harrigarria izan da Bizkaian, EAJren ohiko gotorlekuan, hemen ere PSE gailendu zaiolako bototan (35.000 baino gehiagoko aldea) eta diputatutan (1 gehi- go). Duela lau urte baino diputatu bat gutxiago aukeratzen zuen Bizkaian, jeltzaleek galdu dute berau eta ondorioz lehen indarra izateari utzi diote estreinako. Ezustekoa eman duen beste lurraldea Gipuzkoa izan da: 2004ko eta iazko goranzko joerari eutsi egin dio PSEk —botoak ira- bazi dituen alderdi bakarra izan da— eta eserlekua lortzeko EAk zuen aukera zapuztu du, honek boz asko galdu baititu —%40 baino gehiago, duela lau urtekoekin alderatuta—. Araban, aurreikuspenak betez, eserlekuak berdin mantendu dira, eta hemen ere sozialistena izan da botoak irabazi dituen alderdi bakarra. Azkenik, Nafarroan beste behin ere UPN izan da garaile, baina ez du bete hirugarren eserlekua lortzeko zuen helburua, PSNk duela lau urteko emaitzei eustea lortu baitu. Hala, ez du eraginik izan iazko foru hautes- kunden ostean NaBairekin bat ez egitea erabaki ostean PSNn sortu zen krisiak. ■

Euskal gizartearen zati handi batek bere babesa eman dio PSOERI eta pentsatzekoa da elkarrizketaren aldeko Zapatero babestu dutela eta ez ilegalizazioaren bidea